

Eskerrik asko legebiltzar buru Andrea, legebiltzarkideok, gobernu kideak, Egunon guztioi.

Urteko eztabaidarik garrantzitsuena izan beharko luke gaur ekiten diogun aurrekontuen eztabaidak. Azken batean, gobernu baten jokabidea markatzen duen diru-banaketa erabakiko da eztabaida horren ondorioz, eta horrek berarekin beharko luke eztabaida ideologiko eta politikoa; berarekin beharko luke politika ekonomikoak nondik jo beharko lukeen, eta zein beharrei erantzun behar zaien lehentasunez adieraztea, batez ere krisi garaian. Eta berarekin beharko luke gure herriak eta hizkuntzak behar duten bultzadari buruzko eztabaida. Baina bistan da, zein jarrerarekin datorren gobernu eztabaida honetara. Beste behin ere, entzutera edo eztabaidatzera baino gehiago, tramite bat pasatzera dator, bai gobernu eta baita gobernu sostengatzen duten taldeak ere.

- Batetik, gehiengo absolutua izateak eragiten dizuen nagikeria intelektual eta politikoagatik.
- Eta bestetik, eredu ekonomiko propiorik ez duzelako gaur hemen defenditzeko. Alor ekonomikoari dagokionean, gaur hemen aurkezten diguzuen aurrekontua merkatuak Espainiari markatu dizkion pausuen *segidismo* hutsa egiten duten aurrekontuak direlako. Nazioarteko merkatuek Espainiari jarritako gidoia, zuek euskal sozialistek eta popularrek, Euskadin ere egonkortasun fiskalaren bila murrizketen gidoia jasotzen duen aurrekontu bat aurkezten diguzuelako. Espainian ez, baina hemen bai, gauza beraren gainean ados jarritz.
- Nahiz eta gurean egoera erabat desberdina den. Nahiz eta gurean BPGarekiko zorpetzea askoz ere txikiagoa den eta, gainera, gure ekonomia erabat desberdina den, nahiz eta alor ekonomikoan politika propioak egiteko eskumen maila altua dugun. Berdin da: han zer, hemen berdina. Hori da gobernu honen logika, batere logikoa ez dena.
- Jakin badakizuenean, Espainia ez dela guretzat eredu ekonomikoki, zama baizik. Eta horren adibide garbia da zorra ezartzerakoan aurkitu dituzuen arazoak nazioartean. "Espainian emititua" goiburua duen edozein emisiok zailtasunak dituelako eta, beraz, gobernuaren ahalegina Espainiako ekonomia eta bere eredutik aldentzekoa izan beharko luke, ez mimetikoki kopiatzearena.

Baina ez, zuen aukera kontrakoa da eta erabat okerrekoa. Merkatuen presiopean, zorra eta defizit publikoa jaisteko eta kontrolatzeko Europak eta Estatu espainiarrak hartutako bide berari jarraitzea erabaki du Jaurlearitzak, gure egoeraren berezitasunak kontuan hartu gabe:

Inbertsio sozialak sustatu, kalitatezko enplegua bultzatu, zerga politika aldatu eta babes sozialari eutsi beharrean, –oro har, ekonomia suspertzeko neurriak hartu beharrean–, kanpotik ezarritako egonkortasun fiskalaren helburua ekonomia bera berpiztearen gainetik jarri duzue. PPK eta merkatuen logikak inposatua, hitz erdi bat bera ere egin gabe onartu duzue: langileen soldatak jaistea, zerbitzu publikoak ahultzea eta horietan behin-behinekotasuna bultzatzea, alor pribatuari ateak are gehiago irekitzea –bereziki Osakidetzan–, gizarte ongizatea eta babesa praktikan murriztea... Hori guztia, nahiz eta jakin, era horretan ezinezkoa dela ekonomiaren suspertzea, enpleguaren hazkundera bultzatzea eta babes sozialari eustea. Baina, zuen betiko aitzakia da ezin dela besterik egin. Eta horren aurrean ozen esan nahi dugu: posible da gure herrian bestelako politika ekonomiko bat egitea.

Merkatuaren eta espekulazioaren logiken gainetik, POLITIKA aldarrikatzen dugu, publikoa denak ekonomiaren motorra izateko eta gizarte babesean eta politiketan ahaleginak egiteko. Baina horrek erabaki politiko propioak hartu eta aurrera eramateko lidergoa eskatzen du, gobernu honek behin eta berriz erakusten ez duena.

Hasteko bestelako Politika fiskala egin daiteke. Zerga politikan aldaketak egiteari uko egin diozue, nahiz eta urte osoan gaiari bueltaka ibili zireten. Aurreko urtean egonkortasun hitzarmena egin zenutenetik hasi zireten esaten zerga-politikan aldaketak egitea ez zenutela baztertzen. Haizeak eraman ditu hitzok. Eta gaur da eguna, ez duguna ezagutzen zein den gobernuaren proposamena, zerga politikei dagokionez. Eta ez iezaguzue esan ez dela posible, diputazioek ez dutela nahi, edo eta Europako gainontzeko herrialdeek kontrako norabidean ari direla erabakiak hartzen. Gogoratu besterik ez, gure presio fiskala Europar Batasunakoaren batz bestekoa baino 6 puntu baxuagoa dela. Esan egiguzue, gutxienez, zein zen zuen proposamena.

Eta ondorioz, MURRIZKETAK dira aurrekontu hauetan protagonistak. Murrizketak ez bakarrik pertsonal gastuetan eta gastu arruntan. Murrizketak oinarrizko zerbitzu publikoetan ere.

Inbertsioetan bera egiten da, batez ere inbertsio sozialetan. Iazko aurrekontuekin alderatuz %6,1 jaitsi dira, erdia AHTri zuzendua gainera. Aldiz, ongizatea hobetzera zuzendutako inbertsioak oso eskasak dira: etxebizitza, Osakidetzaren baliabide mapa edo eta hurbileko trenbide sareari zuzendutako diru-partidak oso murrizak dira. Eta aparteko inbertsio planak jaitsiera hori disimulatzeko saiakera bat besterik ez dira; inondik inora ez da egiten egungo egoerak behar duen apustu estrategikoa inbertsio publikoetan ekonomia suspertze aldera.

Langabezia da, eta izango da, hurrengo urtean ere arazorik larrienetakoa. Egun 133.000 pertsona langabetu daude gure Erkidegoan; langabeziak goranzko joera dauka eta, gogoratu beharra dago, langabezian dauden pertsona horietatik herenak ez du inolako diru-sarrerarik. Eta honi aurre egiteko, kalitatezko enplegua sustatzeko eta babes soziala handitzeko politikak sustatu beharrean, kontrako norabidea hartzen dute aurrekontu hauek:

- Batetik, kalitatezko enplegua gutxitu, langile publikoen soldatak jaitsi, OPEak gutxitu eta ordezkapenak ezabatu.

- Eta, bestetik, langabezia saria bukatzen ikusten duten sektoreei laguntzeko adinako babesa emateari uko egin eta, gainera, gizarteko sektorerik ahulenen gainean jarri iruzurraren mamuaren zama. Benetan onartezina.

Faltsua da gobernuak egiten duen diskurtsoa alor sozialean; faltsua eta mingarria. Faltsua, ez delako egia gastu sozialean gora egin denik. Diru sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten lagunen kopurua %14 igo da joan den urtetik, baina iaz baino 1,4 milioi gutxiago dago aurreikusia.

Eta mingarria: laguntza horien beharra duen populazioa inoiz baino handiagoa den honetan, lana galtzen ari garelako, lan berria sortzen ez delako eta ez, bat batean, euskal gizartea alfer koadrila bilakatu garelako, hori adierazten baitu geroz eta

baldintza gogorrakoak jartzeak laguntza horiek eskuratzeko. Zergatik? Aurrekontu hauekin alor sozialean gobernuak duen arazoari irtenbidea bilatu nahi zaiolako, eta ez gizarte sektore horren arazoei. Zuek egin duzuen planteamendua hala laburtzen da: “Eskari gehiegizkoen aurrean, murriztu ditzagun eskatzaileak”.

Eta horregatik gogortzen dituzue lehendik gogorrak ziren baldintzak: etxebizitza bakoitzean bi laguntza jasotzeko muga eta, batez ere, oraindik zehaztu gabe dagoen gobernu honen neurri populista bezain eskuindarra dena: laguntzaren jasotzailea edozein lan hartzera behartzea. Gobernu honek, populismoa egin eta gizarteko sektore kontserbadore eta akomodatuena lasaitzeko saiakerak egiteaz gain, argitu beharko luke zein baldintzez hitz egiten duen horrelakoak botatzen direnean. Prestazioaren hartzaileak edozein lan hartzeko obligazioa izango du? Nahiz eta lan prekarioa izan? Nahiz eta bere bizilekutik urrun egon? Nahiz eta zerikusirik ez izan bere lanbidearekin? Noiz galduko luke prestazioa?

Eta hori gutxi balitz, iruzurraren zalantzaren zama gizarteko sektore ahulenen gain bota duzue, ez benetako iruzurra hor dagoelako; ez lehenago ere inspektoria egiten ez zelako, ez. Horrela, benetan azpian dagoen errealitatea estali nahi duzuelako: gero eta eskari handiagoari erantzuteko borondaterik eza. Eta hor daude datuak: lehen emandakoaz gain, etxebizitza osagarriko ere 1,4 milioi gutxiago aurreikusi da eta larrialdietarako laguntzetarako aurreko urteko kopuru berdina, nahiz eta jakin erabat ez-nahikoa suertatu dela aurten ere.

Jokabide erabat onartezin honekin, gobernuak bere arazoak konpondu nahi ditu, begiak itxi gero eta gordinagoa den errealitate baten aurrean, eta bere zenbakiak kuadratzea bilatzen du gizartearen arazoak konpontzera bideratutako politikak egin beharrean.

Osasun alorrean egindako murrizketak ere oso kezagarriak dira. Lehendik ere baxua zen osasun gastua, aurten, %3,5 jaisten da eta horren ondorio dira sail horretan gertatzen ari den gainbehera: asteburuetan pediatria zerbitzuak kentzea, hainbat osasun zentro ixtea edo eta EAGen langileen lan baldintzen okertzea. Zer esanik ez, zerbitzuen pribatizazioa mantentzeko apustua edo eta, etorkizun hurbilera begira egin diren hainbat iragarpen: arreta presentziala era birtualean artatzeko azpikontratatu den O-sarean sistema, pediatriaren arreta zazpi urtera jaisteko erabakia, errezeten balizko kopagoa... Osasun zerbitzu publikoaren kontrako eraso zuzena gertatzen ari da eta bide horretan sakontzeko asmoa agertu digu gainera gobernu honek, berriz ere, baliabide gutxien duen gizarte-sektoreak pairatuko duena.

Baina jokabide horien aurrean sozialistek baduzue **aitzakia**. Batzuetan datuak ukatzen dituzue, eta ukazioaren bidea agerikoegia dela uste duzuenean baduzue lelo bilakatu duzuen esaldia. Ezin da beste ezer egin. “Krisian gaude, eta dagoena dago. Ez dugu nahi, baina ez dugu beste aukerarik”. Beraz, onartzen duzue ez duzuela proiektu

propiorik. Kanpotik esandakoa egiten duzuela: non geratzen dira orduan zuen kontratu sozial eta gizarte honekiko konpromisoak? Non geratzen da lehendakariak hainbatetan errepikatutako leloa gizarte babesaren honaino mantendu nahi badugu, diru-sarrera nahikoak bermatu behar ditugun hura?

Beste behin ere erakusten duzuen da, ez duzuela herri honi eskaintzeko **proiektu propiorik**. Joan den urtean egun ministro egin duten zuen alderdikideak, Ramon Jauregik, zintzotasun ariketa bat eginez zera esan zuen aurrekontuen eztabaidaren atarian: “aldaketaren gobernuaren garelako erakutsi dugu, orain herri proiektua badugula erakutsi behar dugu”. Eta begiak ireki izan balizkizue bezala, hasi zineten korrika eta presaka,

–Euskobarometroaren emaitza argigarriek lagunduta–, herri proiektua diseinatzen-edo. Legealdi hasieran aurkeztu ez zenuten programa edo antzeko zerbait egin beharra sentitu zenuten eta Olentzerok ekarritako oparia balitz bezala, Gabonetako oporren bueltan aurkeztu zeniguten zuen “herri proiektua”: kontratu soziala. Horren ondotik etorri ziren zerga-politika aldatu beharraren gaineko diskurtsoa eta lege-egutegi mardula.

Urtea joan da eta badakizue zer? Lehengo tokian gaude: kontratu soziala haizeak eramane du, eta lege-egutegia bidean galdu da. Bitartean, legebiltzar honetan ez da lege-proiektu garrantzitsurik aurkeztu eta, beraz, berriro ere biluzik zatozte aurrekontuen eztabaida honetara. Zer da beraz gobernu honek propioa bezala eskaintzeko duena? Hasieran zuen gauza bera, eta ez besterik: ALDAKETAREN GOBERNUA zaretela. Buelta guztia eman eta lehenean zaudete.

Eta hor bai, **aldaketaren gobernuan** sakontzeko asmoa erakusten duzue aurrekontuetan ere, urte honetan egin duzuen bezala: hezkuntzan, bake-heziketan, hizkuntz politikan eta giza eskubideen eta bakearen aldeko politiketan, hor bai, politika propioetan sakonduz eta gizartearen gehiengotik urrunduz. Hor bai baduzue nortasuna, nortasun frentista, gehiengoa baztertzen duena, eta gero eta agerikoagoa egiten duzuen gainera, agian, jabetu zaretelako ez duzuela beste ezer saltzeko.

Hezkuntzan lehengo lepotik burua, baina gainera noranzko okerrean tematuz eta sakonduz. 2011ko aurrekontuetan A ereduko kontzertatueterako lehengo urtean zabalduetako partida bikoiztu egin duzue, 8 milioi euro, hezkuntzako aurrekontua %3,3 jaisten denean. Jakinda ez duela euskalduntzen, jakinda ikasle horiei urratu egiten zaiela bi hizkuntza ofizialak jakiteko eskubidea. Eta galdera da, zer nahi duzue, etorkizuneko belaunaldiak euskara ez jakitea? Zein herri eraiki nahi duzue, bere hizkuntza propioa ezagutzen ez duen belaunaldi berriekin? Bere poetek esaten dutena ulertzeko gaitasunik ez duten belaunaldiak osatutako herria? “Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak” zioen Xabier Letek, zer bilatzen duzue katea etetea? Zer eramatean zaituzte jokabide hori hartzera euskararen legea onartu eta 28 urtera?

Eta ez esan eskariari erantzuten diozuela. Etorkinak, datozen lekutik datozela, gure herriko egin nahi ditugu, guk bai. Eta gure herriko egiteko zer hobeto gure hizkuntzaren jabe izateko aukera ematea baino. Zergatik behartu behar dituzue haur horiek heldu direnean ahalegin askoz ere handiagoa egitera, orain modu naturalean ikasi dezaketenean? Ez du zentzurik euskara munduratzeak mundutik euskararen herrira datozenei gure hizkuntza ikasteko aukera bermatzen ez badiegu. Zuentzat euskara apaingarri bat dela agerian uzten duzue jokabide horiekin, guretzat aldiz, ia dena da. Gure sustraia, gure mundu ikuskera, gure herria, gure komunikazio tresna.

Eta horren adierazle da ere, **hizkuntza politiketan** ere, nabarmena den atzerapausoa. Atzerapausoa da nagusi diru-partida gehienetan. 'Euskara askatasunean' lelo faltsu horren atzean, euskaraz ikasten ari eta maila gaintitzea lortzen duten ikasleentzako beka-partida %20 jaitsi duzue. Aurrekontu horietan euskarak behar duen bultzadarako irizpiderik ez dago, eta benetan sentitzen duzuen azaleratzen duzue: euskara bigarren mailako hizkuntza dela zuentzat.

Aldaketaren gobernuaren eraman nahi izan duzue EITBra ere, ez bakarrik edukietan, ez bakarrik ETB1 bultzatzeko konpromiso ezarekin, edo Nafarroan seinalea hartzeko behar adinako ahalegina egiten ez duzuelako. Baizik eta, "indarkeriaren deslegitimazioaren inguruan" pedagogia egiteko erabili nahi duzuelako eta, hori gutxi balitz, aurrekontuen memorian bertan espresuki jasotzen duzuelako PP-PSEren akordioa garatzeko erabili nahi duzuela. Eta pedagogia diozuen lekuan adoktrinamendua esan nahi duzue. Sinistu egin bazenute bezala, komunikabide publikoen erabilera politikoarekin gizartearen sentitzeko modua eta pentsamendua aldatzea lortuko zenutela. Baina, oker zabilzate. Eta benetan jokabide horrekin erakusten duzuen da zeinen gutxi ezagutzen duzuen gure herria, gure gizartea. Lortu duzuen ez da jendea aldatzea, lortu duzuen da jendeak telebista ez ikustea, eta are larriagoa dena, gobernu honek inoiz Eusko Jaurlaritza batek izan duen aldekotasan txikiena izatea.

Giza eskubideak eta bakea

Eta gauza bera esan dezakegu giza eskubideen alorrean. Orain arteko ibilbidean sakontzeko asmoa agertzen da aurrekontuetan. Eta argi esan nahi dut ezer baino lehen, **gai horretan premisa faltsu bezain injustu batekin ekin zeniotela zuen ibilbideari**: alegia, zuek etorri arte ez zela behar adina egiten indarkeriaren aurrean, bereziki ETaren indarkeriaren aurrean, eta euskal gizartea lokartua zegoela gai horren aurrean.

Ez dakit sinetsi egin duzuen, baina baieztapen hori, berriki, giza eskubideen zuzendaritzatik entzun behar izan dugun Legebiltzar honetan, eta erabat faltsua da eta faltsua ez ezik, ordezkatzen duzuen gizartearentzat iraingarria da. Eta gobernu batek bere gizartea iraintzea azkena da. Ez dizuegu onartuko jokabide hori.

Eta faltsua da, besteak beste, euskal gizartea gai horretan ere erakundeen aurretik ibili delako. Erakundeetan ez zegoenean ez politika publikorik ez bestelakorik, gizartea kalera ateratzen zen indarkeriazko gertaera guztien aurrean. Euskal Herrian bakearen aldeko mugimendu sozialak beste inon baino indar gehiago izan duelako azken hamarkadetan; erakundeak eta alderdiak baino lehenagotik. Beraz, ez da bidezkoa, ezta onargarria ere, gai horrekiko ezarri nahi izan duzuen inflexio puntua zuek gobernu hartzearekin batera. Eta gainera, harroa izan behar da, zentzurik txarrean, sinisteko zuek izan zaretela lokartua zegoen gizartea esnatu duzuenak. Benetan sinisten duzue hori? Zein eratako mesiaztat duzue zuen burua? Larria ez balitzateke, patetiko xamarra ere badela esango genuke.

Eta noski, ustezko inflexio puntu hori hartu eta misio bat jarri diozue zeuen buruari: “indarkeriaren deslegitimazioa” deitu duzuen. Eta horren aitzakiapen herri honetako sufrimenduaren alde bat azpimarratu duzue, eta hori aurrekontuetan ere nabarmen agertzen da: diruz lagundu elkarte jakin batzuk bakarrik, bake-hezkuntza planari izena aldatu eta norabide murrizta eman diozue legebiltzar honen gehiengoaren aurka eta hori garatzeko giza-eskubideen alorrean lanean ari diren talde batzuk eta autore batzuk bakarrik finantzatzen dituzue.

Eta hori gutxi balitz, oso kezagarria deritzogu “motibazio politikoak eragindako biktimei” zuzendutako partida bakar bat ere ez jasotzea. Hil honen lehenengo egunean aurkeztu zen txostenak aurrera egiteko eta aurrera egin dezan nahi duzuela sinesgarri izateko, diru-partida beharko zukeen aurrekontuetan. Ez dago euro bakar bat bera ere horretarako. Nola interpretatu behar dugu hori?

Aurrerapauso bat ematen dugun bakoitzean, bi atzera egiten dituzuela dirudi. Sufrimendu guztien errekonozimenduaren premia adosten ari ginenean Patxi Lopez lehendakariak berriro ere irabazle eta galtzaileen bakeaz hitz egiten zigun bezala. Ezin dugu onartu inolaz ere, sufrimenduaren alde bakarreko begirada hori, ez eta bakea ulertzeko Eusko Jaurlaritzak egin nahi duen alde bateko kontakizuna ere. Azken horretan, espero dut koherentzia minimoagatik bada ere, onartuko duzuela gure zuzenketa. Giza eskubideen gaian ezin delako “bai baina ez” esaten ibili zuek zabilzaten bezala. Aurrekontu honetan EZ esan duzuen bezala. Nora ezaren beste adierazle bat?

Azken batean, aurrekontu proiektu honen itzultzea eskatzen dugu proiektu politiko eta ekonomiko propiorik ez eta “deslegitimazioaren” ikurrari eusten dion gobernuaren aurrekontu murriztaile hauek ez direlako euskal gizarteak behar dituenak: ez krisiari erantzun sozial bat emateko, ez gure hizkuntzaren bultzada emateko, ezta ere hain premiazko dugun bakea eta adiskidetzea bultzatzeko. Besterik ez.